

EUSKARA. Otsailean omenaldia egingo diote, eta hari buruzko jardunaldiak atondu dituzte

Agustin Kardaberaz lan gogora ekarriko du aurten Euskaltzaindiak

Hernaniko euskaltzale eta idazlearen jaiotzaren hirugarren mendeurrena beteko da aurten

Asier Iturriagaetxebarria | BILBO

Agustin Kardaberaz idazle eta euskaltzalea (Hernani, Gipuzkoa) omenduko du aurten Euskaltzaindiak, haren jaiotzaren hirugarren mendeurrena ospatzeko. Horretarako, otsailaren 27tik aurrera hainbat ekitaldi gertatu ditu Akademiak. Egun horretan, omenaldia egingo diote Kardaberazi Hernaniko udaletxean, eta, otsailaren 28tik martxoaren 1era, erakundearen XIII. Barne Jardunaldiak egingo dituzte Hernanin.

Horrez gain, azarorako Hernaniko euskaltzaleari eskainitako jardunaldiak izango dira Donostian, Deustuko Unibertsitateak daukan egoitzan. Jose Luis Lizundia Euskaltzaindiko idazkariordeak atzo azaldu zuenez, Kardaberazek landutako alor garrantzitsu biak aztertuko dituzte bertan: hizkuntza eta erretorika. Deustuko Unibertsitatearekin elkarlanean antolatutako jardunaldietan, hauek izango dira hizlariak: Rosa Miren Pagola, Bittor Hidalgo, Elixabete Perez Gaztelu, Jose Ramon Zubiaur eta Josu Bijuesca.

Hala ere, ez da Kardaberaz izango aurten Euskaltzaindiak omenduko duen euskaltzale bakarra. Hala, Federico Baraibar, Manuel Intxauspe eta Juan Bautista Merino Urrutia gogoratzeko ekitaldiak ere izango dira. Baraibar arabarra Espainiako Hizkuntzaren Errege Akademiako kide izan XX. mendearen hasieran, eta Euskaltzaindiko kide izateko ere proposatu zuten. Lizundiak agertu zuenez, Euskaltzaindiaren asmoa da Gasteizen egitea Euskaltzaindiaren osoko bilkura, baina oraindik ez daukate ezer zehaztuta.

Errioxa eta euskara

Halaber, 29 urteren ostean, Euskaltzaindia Errioxara itzuli da. Laminiturri Errioxako euskara elkarrekin eskatuta, Juan Bautista Merino euskaltzainaren omenezko jardunaldiak egingo dituzte. Errioxako toponimian euskal izenak agertzen zirela ohartuta, horixe aztertu zuen Merinok. Haren lana gogoratzeko, onomastika jardunaldiak egingo ditu Akademiak Errioxan. Logroñon, Ezkarain edo Ojocastreon izango dira, baina oraindik zehaztu gabe dago.



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

Jose Luis Lizundia eta Xabier Kintana azaldu zuten Euskaltzaindiaren aurtengo egitaraua.

OMENDUAK

Lau izen, lau euskaltzale

Kardaberaz Urtea izendatu du 2003 Euskaltzaindiak. Dena dela, Manuel Intxauspe, Federico Baraibar eta Juan Bautista Merino Urrutia ere omenduko ditu Akademiak.

AGUSTIN KARDABERAZ. Gipuzkoako Hernani herrian jaio zen, eta XVIII. mendeko euskal iker-tzaile eta idazle garrantzitsuenetakoa bat da. Abadea zen, eta Oñati, Azkoitia, Bergara eta Bilboko jesuitetan teologia irakaslea izan zen. Italiako Bologna hirian hil zen. Euskara eta erretorika izan ziren Kardaberazek gehien aztertu zituen gaiak. Hala, euskaraz ondo idatzi, irakurri eta idazteko lanak dira aipagarrienak. Bere lanik behinenak *Eusqueraren berri onac* eta *Cristauaren vicitza* dira.

FEDERICO BARAIBAR. Arabako diputatu nagusi eta Gasteizko alkatea izan zen 1851n jaio eta 1919an hil zen itzultzailea eta idazlea. Espai-

niako Errege Akademiako kide izan zen, eta lehen euskaltzain arabarra izateko ere proposatu zuten, baina izendatze prozesuan zirela hil zen. Euskaltzain urgazlea ere izan zen. Arabako erdaran gelditu diren euskal hitzen zerrenda egin eta aztertu zuen.

MANUEL INTXAUSPE. San Mateoren ebanjelioaren zubererazko itzulpena egin zuen, Bonaparte printzeak eskatuta. Zunharren (Zuberoa) jaio zen (1815), eta Omize-gañian hil (1902). Baionako apezpikuaren idazkari nagusi izanik, erlijioaren inguruan egin zituen lanik gehienak. Hala ere, *La verbe basque* izan zen bere lan nagusia. Axularren *Gero* ere berrargitaratu zuen.

JUAN BAUTISTA MERINO. Errioxako Ocojastro herrian jaio bazen ere, Algortan (Bizkaia) bizi izan zen, eta Getxoko alkate ere izan zen. Etnologoa, politikaria eta euskaltzalea izan zen. Errioxako eta Burgosko toponimiaren inguruan egin zituen azterketak oso baliotsuak dira. Euskaltzain urgazlea izan zen, eta euskaltzain ohorezko egin zuten 1974. urtean.

IZATEZKO BIKOTEAK

EAEko izatezko bikoteen lege proiektuak Eusko Legebiltzarreko bidea hasi du

Agentziak | GASTEIZ

Eusko Legebiltzarreko Mahaiak atzo onartu eta gero, EAEko Izatezko Bikoteen Erregimen Juridiko Arautzailearen Lege proiektuak hasi du Eusko Legebiltzarreko bidea. Lege proiektuaren testua atzo iritsi zen Eusko Legebiltzarrera, Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Gaietako Sailak eskatuta Gobernu Kontseiluak onartu eta hila bidera.

Lege proiektu horrek, besteak beste, onartu egiten du izatezko bikoteek haurrak adoptatu ahal izatea edo haurren ardura hartu ahal izatea, «ezkontzan elkartutako bikoteen edo sexu ezberdineko kideez osatutako bikoteen eskubide berekin».

Gainera, proiektuaren arabera, izatezko bikoteek ezkonduen tratamendu fiskal bera izango dute, eta, bikotekideren bat hiltzen bada, besteak bien ondasunak gozatu ahal izango ditu, aldez aurretik hala hitzartuz gero.

Lege proiektuak jasotzen duenez, izatezko bikoteak ezkonduen moduan tratatuko dituzte EAEko funtzio publikoaren legean eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako funtzionarioen estatutua arautzen duten gainerako legeetan.

Eusko Jaurlaritzak Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako izatezko bikoteen erregistro bat sortu nahi du, berei legea aplikatzea nahi duten bikoteek izena emateko. Izena emateko baldintza izango da bikotekideetako bat Araban, Bizkaian edo Gipuzkoan errolatuta egotea.



OÑATIKO UDALA

Oñatiko Udal Plenoak, 2002ko abenduaren 26an egindako bilkuran, Planeamenduko Arau Subsidiarioetan aurreikusitako 1.40 H.G., Urbietako Sektorean Konpentsazio erako jarduketako sistemen ordez Kooperazio-sistema ezartzea onartu zuen hasiera batean.

Aldaketa hori Fernando Iñurritegui Zubia jaunak, 1.40 H.G., Urbietako Sektoreko Konpentsazio Juntaren izenean nahiz "Oñatalde S.L." enpresaren izenean; Jesus Iñurritegui Altuna jaunak bere izenean, Angel Iñurritegui Castañares jaunaren nahiz "Iturritxo S.L." enpresaren izenean; eta Juan Jose Osinaga Uriarte jaunak Talleres Aitzgain S.L. enpresaren izenean eskatua izan zen.

Hirigintzako Kudeaketaren Erregelamenduko 38 artikulua arabera, 155 artikuluar dagokionean, hamabost eguneko epean jarriko da espedientearen jendaurrean, akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunetik hasita. Epe horretan zehar interesatuek aztertu eta bidezko gerta daitezkeen alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Oñatin, 2002ko abenduak 27an
ALKATEAK



MUSKIZKO UDALA

IRAGARKIA

2002ko azaroaren 28an eginiko bilkuran Udalbatza Osoak, besteak beste, honako hau erabaki zuen:

LA RIGADAN LANDAGUNE BEZALA SAILKATZEKO T Y D INNOVACIÓN Y MANTENIMIENTO, SA-K AURKEZTURIKOA HASIERAN ONESTEA. La Rigadan inguralde bat landagune bezala sailkatzeko, T y D Innovación y Mantenimiento, SA-k aurkezturiko Arau Subsidiarioen aldarazpen puntualaren kontu eman ondoren, eta ikusita eginiko bosten tekniko eta juridikoak, eta Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak emaniko irizpena, Udalbatza Osoak honako hau erabaki zuen:

Lehenengoa: La Rigadan inguralde bat landagune bezala sailkatzeko, T y D Innovación y Mantenimiento, SA-k aurkezturiko Arau Subsidiarioen aldarazpen puntuala hasieran onestea. **Bigarrena:** Hilabeteko epean jendaurrean azaltzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiarekin bitartez, eta espedientearen aztertu nahi duten guztien eskura jartzea, beren ustez egoki diren alegazioak aurkezteko aukera izan dezaten. Halaber, iragarkia argitaratuko da Lurralde Historikoko egunkarietako batean behintzat. **Hirugarrena:** Plangintzaren aldarazpena jasotzen duten Lurralde Historikoko eremuaren lizentzien emakida etetea, beti ere bere zehaztapen berrien ondorioz indarrean dagoen hirigintza araubidea aldarazten bada.

Muskizen, 2003ko urtarrilaren 13an. Izpta.: Gualber Abxura Perez. ALKATE-UDALBURUA.